

# AGUR AMA NEREA, AGUR, AGUR, AGUR

Garbiñe Oyarbide Iruretagoiena

“Ez duzue bizitzan zuen amarena baino samurtasun hoberik, sakonagorik, eskuzabalagorik ez eta egiazkoagorik aurkituko”

Honoré de Balzac



**I**naxi Iruretagoiena Intxauspe, alaba, lahizpa, emaztea, amona, baina, batez ere, ama izan zen. Ama, hitz xumea, hiru hizki besterik ez, baina hainbeste esanahi. Ama izan zen bere bost seme-alabentzat, baina biologikoki zegokion paper horretaz haratago, ama izan zen baita nortasunez ere. Amatasun hori zerion inguruan zituen guztiekiko.

**Agur Jesusen ama**

*Agur, Jesusen ama,  
Birjina maitea,  
agur, itsasoko izar  
distiratzaila.*

*Agur, zeruko eguzki  
pozkidaz betea.*

*Agur, pekatarien,  
kaia eta estalpea.*

*Agur, pekatarien,  
kaia eta estalpea.*

*Baina Zugandik alde,  
bihotzak ezin du,*

*Zuregana dijoa,  
Zugan bizi nahi du.*

*Birjin berdingabea,  
onetsi nazazu:*

*Agur, Ama nerea,*

*Agur, agur, agur.*



Ama ez zen errenteriarra sortzez, bai ordea bihotzez. Buenavistan jaio zen, aita, Juan Joxe zuen, Aiakoa eta ama, Inaxi, donostiarra. Esan ohi den bezala, Errenteriarra ezkondu zen eta bertan hazi eta hezi zuen bere familia. Garai hartan ohikoa zen bezala, Errenteriarra etortzen zen ezkongaietan dantzara eta bertan egin zituen baita lagun minenak ere, Pili eta Maite, ezkongaietako lagunak, errenteriarrek ziren eta adiskidetasun hori urte luzez gorde dute. Amak bere donostiartasun puntu hori galdu ez bazuen ere, San Sebastian bezperako danborrada ikusten urtero hunkitzen zen, bere Errenterierekiko lotura sendoagoa zen, izan ere, bere seme-alabak errenteriarrek ziren. Errenteriarren ama zen eta horrek errenteriar egiten zuen bihotz bihotzez.

Emakume alaia zen ama, hitzuna, baina apala, protagonismorik bilatzen ez zuena. Sukaldaritza maite zuen, besteak zoriontsu egiteko modua zuelako, esango nuke nik. Baserrian familiarentzako, lagunentzako, hara lanera edo gonbidatuta joaten ziren hainbat eta hainbatentzako otordu goxoak prestatu zituen urte luzeetan. Arrain zopa, menestra, ahatea laranja saltsan, gisatutako indioilarra, bakailaoz betetako piperrak, ordu luzez ekonomikan pol-pol-pol goxatutako babarrunak, mazedonia, bizkotxoak, flanak... amak prestatutako otordu goxoak jan zituen edonork ez dauzka ahazteko.

Ama euskalduna, euskaltzalea eta abertzalea zen. Bere euskaltzaletasuna eta abertzaletasuna gure aitak indartu zituen. Etxe askotan gertatu izan den bezala, amaren etxean, euskaldunak izanik, maiz gaztelaniaz mintzatzen ziren. Aitona Aiatik Donostiara joan zen gaztetan lan bila, gaztelaniaz "trabajo" esaten besterik ez zekiela eta gure aitak ez zuen ulertzen nola zitekeen etxe hartan gaztelaniaz mintzatzea. Amak erabat barneratu zuen hura eta gure etxean beti hitz egin da euskaraz. Bere bost seme-alabak Orereta Ikastolan hezi zituen eta aita eta biak ikastolarekin konprometitu ziren hastapenetatik. Aita eta ama abertzaleak ziren, EAJko kideak, oinarrizko kideak, alderdian edo erakundeetan zuzeneko ardurarik ez zuten izan, baina beren seme-alabengan ideia haiek sustatu zituzten. Gogoan ditut txikitatik beraiekin bizi izan ditudan mitinak, alderdi egunak... Aita eta ama euskaldunak, euskaltzaleak eta abertzaleak izan ziren eta beren seme-alabak balore horietan hezi zituzten.

Ama etxeoandrea zen. Garai bateko etxeoandre horietakoa, besteentzako bizi zen horietakoa. Gaurko perspektiba batetik esango genuke ez zuela bere bizitza bizi izan, baina bizitza hura, hein handi batean gogoko zuela esango nuke, besteak zoriontsu egiteak bera ere zoriontsu egiten baitzuen. Gogoan dut txikitan nola laguntzen nion plazara. Bazekien ederki erosketak non egin, gure etxean luxurik ez dugu izan, baina jaki goxoak eta kalitatezko produktuak ez dira sekula falta izan. Nik oraindik ere amaren senari jarraitzen diot erosketak egiterakoan eta berak gogoko zituen arrandegi, harategi eta fruitu dendetan erosten saiatzen naiz, nahiz bera bezain maiz joaten ez naizen eta nik nahi baino sarriago supermerkatuak bisitatu ohi ditudan.

Ama ez zen elizara maiz joaten, baina kristau fededuna zen. Igandero ETBn meza ikustea gogoko zuen. Elkarrekin bizi ez ginenetik egunero hitz egiten genuen telefonoz eta igandeetan meza nondik bota zuten eta zer moduzko eliza zen edo ezagunen bat ikusi ote zuen kontatzen zidan. Otsailean utzi gintuenetik, eguneroko dei hura faltan botatzen dut. Etxera ailegatu eta barruan hutsune hori sentitzen dut, bere ahotsa ez entzuteak sortzen didan hutsunea. Aitak utzi gintuenetik badakit hutsunearekin bizitzen ikasten dela, denborak dena sendatzen duela, baina hutsunea hortxe geratuko da, inork bete ezingo duen hutsunea.

Bere azken agurra, beraz, elizan irudikatzen zuen amak, Fatimako Andra Mariaren elizan, kaputxinoen elizan, gure familiarekin lotura estua duen elizan. Gure aitaren familia eraiki zuen eliza hura eta elizako egurrezko bankuak gure aitak berak eginak dira. Eliza hartako bazkide izan ziren biak urte luzez. Beraz, nahiz azken urteetan ez zen Erreterian bizi izan, bere agurra bertan irudikatzen zuen. Bere agurrean Andra Mari abesbatzak abestea nahi zuen. Andra Mari abesbatzak esanahi berezia zuen beretzat, lagunak izan zituen bertan eta Aintzane bere alabak ere bertan abestu zuen urte askotan. Baina beste nahi bat ere bazuen, bereziki hunkitzen zuen abesti bat abestea, Agur Jesusen ama. Berriz ere bere amatasunaren adierazgarri. Eliza familia, lagunez eta ezagunez betetzea ez zuen eskatu, baina hori eskatu beharrik ez zegoen, hori berak irabazia zeukan bere bizitzan eskuzabaltasunez, maitasunez, alaitasunez eta

apaltasunez jokatur. Horietako askok, gure amak bezala, urtero aldizkari hau erosten duzuela badakigu eta lerro hauek, berarekin bizi izandako momentuak gogora ekartzea eta bere bizitzan eta bere heriotzan berarekin egon izana eskertzea dute helburu.

Agur,  
Inaxi  
Iruretagoiena  
Intxauspe.

Agur ama nerea,  
agur,  
agur,  
agur.

